

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### **Foru Agindua 216/2018 martxoaren 26koa, herrietako merkataritza sustatzeko jardueretarako 2018rako laguntzen deialdia Arabako kontzejuntzat onartzen duena**

Merkataritzaren eginkizuna oso garrantzitsua da gure gizartean, eta gertuko hiri merkataritzak gure herri eta hiriak dinamizatzen ditu gizarte eta ekonomia bizitzaren bultzatzaile gisa.

Arabako Foru Aldundiak, gure lurraldeko merkataritzaren garapenari egiten dion ekarpean, uste du elkarlanean jardun behar duela gure probintzian ari diren gainerako eragileekin eta erakundeekin. Ekimen honen bidez, herrietako merkataritza bultzatu nahi da Arabako eskualde bakoitzean, aberastasuna eta enplegua sortzeko eta Arabako kontzejutako bizilagunek izan ditzaketen oinarritzko merkataritza premiei erantzuteko neurri gisa.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu zituen; araudi horrek arautzen ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak lehia araubidearen pean ematen dituen dirulaguntzak. Araudi hori martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu da.

Oinarri horiek onartuz gero, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, aginduzkoa da laguntzetarako deialdia ezartzea, merkataritza sustatzeko ekimenak berari egokitu beharko baitzaizkio.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehena. Onartzea 2018an herrietako merkataritza sustatzeko jarduerak gauzatzeko laguntzetarako deialdi publikoa, gehienez ere 10.000 euroz hornitua. Deialdi hori honako foru agindu honen eranskin gisara doa.

Bigarrena. Deialdia arautzen dute Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntzak lehiaketa araubidean emateko oinarri orokorrek (Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, 2016ko martxoaren 30 asteazkeneko ALHAOn argitaratua, 36. zenbakian), haren ondorengo aldaketak (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoek.

Hirugarrena. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontuko 30.5.02.36.01.468.00.02 (xedapen erreferentzia: 105.1255/000) gastu partidaren kontura ordainduko dira, zeina 10.000 euroz baitago hornitua.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, diputatu nagusiari aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia jakinarazi ondorengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan erabakia jakinarazi ondoko egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 26a

*Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*  
**JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES**

## ERANSKINA

### 2018AN HERRIETAKO MERKATARITZA SUSTATZEKO JARDUERAK GAUZATZEKO LAGUNTZETARAKO DEIALDIA, ARABAKO KONTZEJUENTZAT

#### 1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan herrietako merkataritza sustatzeko jarduerak babestea, lehiaketa bidez dirulaguntzak emanez.

#### 2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Foru Agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontuko 30.5.02.36.01.468.00.02 (xedapen erreferentzia: 105.1255/000) gastu partidaren kontura ordainduko dira, zeina 10.000 euroz baitago hornitua.

2.2. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

#### 3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Herrietako merkataritza sustatzearekin zerikusia duten ekintzak garatzeko interesa duten Arabako kontzejuek eta Arabako kontzejuen elkarteek eskuratu ahal izango dituzte laguntza lerro honetan jasoriko onurak.

3.2. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten entitateak ezingo dira izan dirulaguntza hauen onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 24.2 artikulua (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea).

Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administrazioa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, harik eta zehapenean ezarritako epea amaitu arte, eta ezta ere Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaienek, hala xedatzen baita 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.5 artikuluan (azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauetarako buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak emandako idazketaren arabera (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa).

#### 4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

- Herrietako merkataritza sustatzeko jardunaldiak egitea.
- Merkataritza sustatzeko materialak diseinatzea, egitea, maketatzea, itzultzea eta inprimatzea.
- Merkataritza sustatzeko programaren baten barruan egiten diren jardueren gaineko publizitate ekintzak, mailing-ak eta buletinak.
- Kontzejuetan merkataritza jarduera sustatzeko jarduketekin eta premiekin zerikusia duten aholkularitza gastuak (merkataritzaren arloko jarduera berrien bideragarritasun azterlanak, ...).

4.2. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta erakunde onuradunak ordaindu egiten baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak ez dira inolaz ere diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko, berreskuratze edo konpentsatzeko modukoak direnean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

4.3. Baimenduta dago diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratutzea, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez).

#### 5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea

Deialdi honetako erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dituzte diruz lagundutako jardueren emaitzak. Diruz lagundutako jarduerak 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko azaroaren 30era bitarteko aldiari gauzatu beharko dira.

#### 6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuari aplikatzekoa zaion dirulaguntza ehuneko 95 izango da.

6.2. Erakunde onuradun bakoitzeko emango den dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoaren mugak:

- 1.000 euro, Arabako Kontzejuen kasuan.
- 6.000 euro, Arabako Kontzejuen Elkarten kasuan.

6.3. Finkatzearen zenbateko gastua justifikatu behar den gutxienez diruz lagun daitezkeezkoen gastuetatik, adituko da diruz lagundu daitezkeen oinarria honako eragiketa honen emaitza dela: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa zati aplikatzen den dirulaguntzaren ehuneko, alegia, kasu honetan, ehuneko 95.

6.4. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 500,00 euro.

#### 7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Jarduerak beste laguntza batzuk jaso ahalko dituzte, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, eta bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren eman beharko zaio horren berri idatziz Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneren Zuzendaritzari. Honek, gero, proposa dezake emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso baldin badu, bateraezina dena, eta helburu bererako, hala adierazi beharko da eskabidean. Kasu horretan, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak eragina izango badu, erakunde onuradunak uko egin beharko die aurretik eskuratutako dirulaguntzei eta jasotako funts publikoak ordain dakizkion, eta uko hori aurkeztu beharko dio aipatutako Zuzendaritzari.

Dirulaguntza eta dagozkion berandutze interesak itzultzeko eskatu beharko da, baldin eta Arabako Foru Aldundiak jakiten badu erakunde onuradun batek beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela, emandakoarekin bateraezinak direnak, eta ez diela uko egin behar den bezala.

#### **8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak**

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

– Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

#### **9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

9.1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia Plaza, 5 - 01001, Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza); edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa bete beharko da.

9.2. Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9.3. Erabaki honetan araututako laguntzetarako eskaerak egiteko erabili behar diren ereduak eskuragarri daude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan –Probintzia plaza 5, 1. solairua, 01001 Gasteiz– eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean. Behar bezala eta osorik beteta, sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar dira, eta agiri hauek erantsi behar zaizkie:

– Herrietako merkataritza sustatzeko jardueren deskribapena.

– Zergatik egingo diren.

– Aurreikusitako gastuen aurrekontu xehatuta.

– Lana egingo duen edo egin duen hornitzailearen eskaintzaren fotokopia (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euroko edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, zergatik aukeratu den azaltzen duen justifikazioa. Proiektua gauzatzen hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000 euroko muga gaınditzen badu, nahiz eta gastua onartu zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

9.4. Arabako kontzejuen kasuan, eskabidearekin batera, 9.3 artikuluan aipatzen den informazioaz gainera, beste hauek ere aurkeztu behar dira:

– Udalaren ziurtagiri behar bezala zigilatu eta sinatua, zeinaren bidez egiaztatzen baita kontzejuak aurkeztu diola udal eskudunari deialdi honetako dirulaguntzak eskatzeko asmoa duelako informazioa eta eskabide hori dela-eta egin behar dituen jardueri buruzko informazioa, eta udal horren oniritzia eskuratu duela.

**10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta baloratzeko irizpideak**

10.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera baloratuko dira:

a) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez 30 puntu).

Eskaera aurkezteko unean eskaera osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila oso ona izan da	30 puntu
Eskaera aurkezteko unean eskaera osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ona izan da	20 puntu
Eskaera aurkezteko unean eskaera ez da osorik egon, baina geroago osatu egin da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da	15 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0-10 puntu

b) Jardueren justifikazioa edo beharra eta izan dezaketen eragina (gehienez 30 puntu).

Justifikazioko maila handia	30 puntu
Justifikazioko maila ertaina-handia	20 puntu
Justifikazioko maila ertaina-txikia	15 puntu
Justifikazioko maila txikia	0-10 puntu

c) Jarduerak zenbatean laguntzen duten ekonomia suspertzen eta enplegua sortzen, eta zenbateraino asebetetzen diren kontzeju eskatzaileetako bizilagunen merkataritza premiak: (gehienez ere 30 puntu).

Handia	30 puntu
Ertaina	20 puntu
Txikia	0-10 puntu

d) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena (0 – 10 puntu).

Baloratuko dira, orobat, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde gauzatu diren edo gauzatzekoak diren ekintza zehatzak, dirulaguntza eman dakion nahi den jardueraren barrukoak.

Lehen aipatutako ekintza horiek egokiro justifikatuko dira.

Horri dagokionez, erakunde eskatzaileek berariaz adieraziko dute eskabidearen inprimakietan ea nahi ote duten atal hori baloratu dadin, eta adieraziko dute zer ekintza zehatz gauzatu duten edo gauzatu behar dituzten emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunaren alde.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintza horiek bete ezean, berdintasunerako pizgarri moduan emandako puntuazioa dirulaguntza ematerakoan erabakigarria izan bada, balio gabetu egingo da dirulaguntza.

10.2. Dirulaguntza emango zaien erakundeak zehaztu eta haien arteko azken hautaketa egiteko, eta bakoitzari emango zaion dirulaguntza zenbatekoa izango den zehazteko, Diputatuaren Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

**11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea**

11.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Ebazteko epea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

11.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, ezarritakoari jarraituz jardungo da.

11.3 Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia jakinarazi ondoko egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan erabakia jakinarazi ondoko egunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

**12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak**

12.1. Laguntza lerro honen kontura finantzatzen diren jardueretan, Arabako Foru Aldundiaren babesa agerrarazi beharko da leku nabarmenean.

12.2. Dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, ekitaldi publiko nahiz pribatuak, aurkezpen, amaiera ekitaldi eta antzekoak alde aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira, bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herri-tarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

**13 artikulua. Emandako dirulaguntzak ordaindu daitezela eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak**

13.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

13.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu beharra onartzeko, onuradunak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

– Azken memoriako orriak.

– Justifikazio kontu erraztua, honako informazio hau jasoko duena:

a) Jardunaren memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta gauzatutako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.

b) Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren sailkapen zerrenda. Hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatza. Zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira.

– Justifikazio kontu erraztuarekin batera, diruz laguntzeko diren eta, banaka hartuta, 500 euro (BEZa barne) baino gehiago egiten duten gastuen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, diren fakturak nahiz barneko langileen gastuak, bai eta haiei dagozkien ordainketa agiriak ere.

– Aholkularitza edo laguntza teknikoaren arloko enpresek emandako zerbitzuen gasturik izanez gero 15.000,00 euro edo gehiagokoa, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautaketa horren justifikazioarekin batera, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, non eta ez den aurkeztu eskaera egiteko orduan, gerora gastu erreala 15.000 euro edo gehiago izanik.

– Eskaera inprimakietan adierazi bada balora dadila “emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenaren atala”: horretarako gauzatu diren ekintza zehatzak frogatzeko agiriak aurkeztu behar dira.

– Dena delako ondasuna edo zerbitzua ematen duen pertsonak jaulkitako faktura jatorrizkoa edo haren kopia konpultsatua.

Fakturak 18/2013 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabekoak izan beharko dira (18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena, fakturazio betebeharrak arautzen dituen arategia onartzen duena –fakturazio arategia–).

Faktura bat ez bada jaulki 18/2013 Foru Dekretuaren 11. artikuluan aipatzen den epean, ez da onartuko dena delako gastua justifikatzeko.

– Dirulaguntzaz besteko diru sarrerarik izan bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.

– Ordainketaren banku frogagiri sinatua eta/edo bankuaren zigiluarekikoa, edo haren kopia konpultsatua.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukeran izango du beste dokumentu batzuk ere aurkeztea, egokia baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

13.3. Ordainketak dagokion frogagiria aurkeztu beharra badakar eta pertsona fisikoen gaineko zergaren konturako atxikipena (PFEZ) egitea badagokio, dirulaguntza esleitu zaion erakundeak frogatu egin beharko du ordaindu dituela PFEZaren konturako atxikipenen zenbatekoak.

Horretarako, PFEZaren konturako atxikipenak egin diren urteko 110. ereduaren kopia bana aurkeztu beharko du, eta haiekin batera dagokion ordainagiria, bai eta 190 ereduaren kopia ere, behar bezala zigitaturik, egindako atxikipenak ordaindu direla egiaztatzearen. Edo bestela, baimena emango du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak egin ditzan dagozkion egiaztapenak.

Atxikipenak Arabakoaz besteko zerga administrazio bati aurkeztu behar bazaizkio, dirulaguntza esleitu zaion erakundeak aurkeztu beharko ditu PFEZaren atxikipenak egin diren urteko 110 ereduaren kopia bana, dagozkien ordainagiriekin batera, bai eta urteko 190 ereduaren kopiak ere, behar bezala zigitaturik, egindako atxikipenak ordaindu direla egiaztatzearen.

110 ereduak ordainketaren banku zigilua eraman beharko du, edo dagokion banku ordainagiriarekin batera aurkeztu beharko da.

13.4. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2018rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

13.5. Baldintza horiek bete ezean, ordaindutako dirulaguntza itzultzeko erreklamazioa egingo da.

#### **14. artikulua. Egiaztagiria aurkezteko lekua eta epea eta dirulaguntza ordaintzeko eskaera**

14.1. Egiaztagiria Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari igorriko zaizkio, eta horretarako prestatutako arauzko eruedetan aurkeztuko. Agiriak eta dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkezteko epea 2018ko azaroaren 30ean amaitzen da.

Agiriak 9.1 artikuluan aipatzen diren erregistroetako batean aurkeztu ahal izango dira. Agiriak aurkeztu direneko data izango da dagokion sarrera erregistrokoa, eta, postaz igorri badira, postetxeko ziurtagirikoa.

14.2. Oro har, behin diruz lagundutako jarduera amaitutakoan, frogagiriak aurkeztu ahal izango dira eta dirulaguntza ordaintzeko eskatu ahal izango da; horretarako, baina, ez da itxaron beharko urtebeteko gehienezko epea amaitu arte, eta horixe izango da, hain zuzen, dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko modurik egokiena.



14.3. Onuradunak eskatutako agiri guztiak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan aurkeztutakoan ordainduko du Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua. Dirulaguntza ordaindu ahal izango da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa, baldin PFEZaren konturako atxikipenak eta/edo fakturen ordainagiriak aurkezteke baditu. Aurkezteke dituen agiri horiek emateko epea 2019ko apirilaren 5ean bukatuko da.

14.4. Egiatagiriak epez kanpo aurkezten badira, gerta liteke emandako dirulaguntza balio-gabetzea.

14.5. Behin diruz lagundutako jarduera behar bezala justifikatu eta gero, eta dirulaguntza eman zuen ebazpenean zehaztutako betekizun eta baldintza guztiak beteta, bidezkoa den dirulaguntzaren likidazioa egingo da.

Ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez, dirulaguntza emateko ebazpenean onartutakoa izango da, eta oinarri espezifiko hauetako 4., 5., 6. eta 10. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko zaio aurkeztutako justifikazioari.

#### **15. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak (martxoaren 6koa, oinarri orokorrak onartzen dituena) 13. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da. Gainera, jarduerak jaso ditzaketen beste laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

#### **16. artikulua. Garapena**

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru agindu hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

#### **17. artikulua. Eskaerak egokitzea**

Jarduera jakin batzuetarako dirulaguntza eskatzen bada eta jarduera horiei ezin bazaie eman erabaki honetan arautzen diren dirulaguntzak, erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz lagundu nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurrean kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako, eta laguntza horiek esleitu ahal bazaizkie, aukeran izango da ofizioz dagokien laguntza lerrora aldatzea.

#### **18. artikulua. Azken klausula**

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaile orokorretan eta haren ondorengo aldaketetan (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, araudia onartzen duena, baita dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak ere.